

JEAN COCTEAU
MAURICE ROSTAND

Les Bucoliques basques
Euskal Bukolikoak
Los Bucólicos vascos

JEAN COCTEAU
MAURICE ROSTAND

Les Bucoliques basques
Euskal Bukolikoak
Los Bucólicos vascos

Itzulpenak: Felipe Juaristi

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2010

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

Les Bucoliques basques © 1949 Éditions Gallimard.

All rights reserved

© Itzulpenena: Felipe Juaristi

© Edizio honena: Labayru Ikastegia

Diseinu editoriala: Ikeder, S.L.

ISBN: 978-84-92599-17-2 L. G.: BI-2844-2010

Jean Cocteau Euskal Herrian

Jean Cocteau, Maisons-Laffitte (Frantzia) herrian jaioa zen 1889an. Euskal Herrira egin zituen ibilaldien oroitzapen poetikoak utzi dizkigu; amari bidalitako gutunetan laudorio sutsuak eskaintzen dizkio euskal lurrari.

Amaren eraginez jarriko da harremanean Daudet eta Rostand-tarrekin 1908an. Bigarren honetako senitartean Maurice-ekin izango du harremana, Edmond Rostand poeta eta antzerkigilearen semea. Lapurdiko Kanbon etxalde bat zuen honek, Arnagan.

Maurice-ekiko adiskidetasunaren ondorio izango da *Schéhérazade* aldizkariaren sorrera, bien arteko elkarlana. 6 ale atera zituzten 1909ko azarotik 1911ko martxora bitartean. 1909ko udan Arnagan egotaldi bat egingo du, Rostand-tarrek gonbidatuta.

1912an, Donibane Lohitzunen bere amarenean egon ondoren, Arnagara joko du han osatuz egoteko, eta handik idatziko dio Cocteau andreari:

«Lehen euri-truxuak. Ezagun ditudan Frantziako paisaia guztien artean, euskal bazter honek egiten dit

eraginik handiena barrenean. Izenak, usainak, hemengo aire ederra, hego-haizea, pilotako frontoi-pareta mezkita bihurtzen duena, herrixkek duten elkarren antz zoragarria, zein bere eliza, frontoi eta hilerriarekin; halako hornidura eta nahastura sendo leuna osatzen dute norbere bihotz betegarri ...» «eta zeure hutsunea igarriko ez banu, hau litzateke egiazko ametsa. Maurice, nire lasaitasunak bareturik, eta ni, Maurice-en ugalkortasunak gainez egirik, euskal bukolikoak batera idazten dihardugu».

Euskal bukolikoak argitaratzeke geratu ziren, harik eta beronen *Œuvres Poétiques Complètes* (Gallimard, 1999, 1543-1551. or.) bilduman sartu izan ziren arte. Hauen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak egin nahi ditugu. Pilota partidu baten deskripzioa dute gai.

Badakigu, bestalde, 1919an gure Herrira beste ikus-taldi bat egin zuela, eta Ahuski-n, Maule ondoan, ostatuz egon zena, Arnagatik 5,5 kilometrora, Louis Durey eta haren emaztea lagun zituela. Egotaldi honetan idatziak ei da harako poema sorta, *Euskal gaia, Garramantua eta Turista*, (O.P.C., 212-213. or.). Honela dio lehen poemak:

EUSKAL GAIA

Artzaintxo bere masail gorristekin. Oilarraren kuku-rruku txatxarra. Eguraldiak hoberantz egin du. Labora-

riak euri eske. Mendi aldean hodeiak, behin multzotu, behin aldendu.

Eskualde honetako jendeak biziro maite du dantza. Ibili al zarete oinez? Oihana bi kilometrora dago, baina han gerizpea dago.

Mandoak zama astunak eraman ditzake. Abere adikorra da, eta begietara atsegina. Esku pelota jokoak indarra eskatzen du, areago trebezia.

Zein iturri paregabea hau! Inguruetatik dator. Gogoko al duzue ura? Bai, baina nahiago ardoa. Artaldeen arran-hotsak gaixo dena nekatzen. Arranoak hegalei zirkinik eragin gabe hegaka. Mendiak perspektiba ikuskitun bitxiak eskaintzen. Neskatxiak kardurdin bat bildu nahi izan du, baina amildegiaz beste aldean izaki!

EZPELETAKO HILERRIA

Zuei darizuen usain gozoa ez doakio ondo zeuen

[soinekoari

Heliotropoak pozik hartuko zintuzke geranio hori!

Eta bioleta usain hori, lorea inondik ageri ez denean,

Zeure begiei dariela esan liteke, zeure begi bioleta miopeei.

Sei orduak dira. Ba al zatoz autoan paseatzera?

Eta bera zain terrazan, laranjadiaren eta hagin-arbolaren

[artean.

Bonbitaz, Artzainaz, Matxakitoz mintzatuko gara...

Eta xistera bihur biziaz.

Eta hilerriraino joanen gara, haren inguruan Ezpeleta lo
[datzala.

Laster naiz han ikusi, urteen zama astunaren pean hilik,
Zeren Euskal Herriko lurtean lirio-lore bat erne da

[eskeleto batean,
Pirinio mendietako paisaia urdin sentigaitzaren aurrez
[aur.

Jean Cocteau literatur sorkuntza ugariaren egile dugu, poesian, narrazioan zein antzerkian. Koreografi argumentu gogoangarriak ondu zituen eta zinematografi lan garrantzitsua ere bai.

Milly-la-Foret-en hil zen 1963ko urriaren 11an.

Leopoldo Zugaza

JEAN COCTEAU
MAURICE ROSTAND

Les Bucoliques basques

I. LE DOUBLE MUR

*À madame la comtesse Greffhule
en souvenir d'une partie de pelote*

JEAN COCTEAU - MAURICE ROSTAND.

Ô frénésie de plaire !

WALTER PATER.

*Baudelaire dirait avec nous, je ne l'aime pas, il affiche
des paradoxes avec affectation*

MADAME V. HUGO.

*Aux courses de taureaux les personnages sont tout
petits avec des couleurs de fuchias*

MANET (*Lettres*).

N'invoque par le Dieu, fils des larmes

SHAKESPEARE.

Je rougis très vite et d'un seul côté comme une pêche

SHELLEY (*Lettres*).

Ma vie est une succession de morts.

WIENCKELMANN.

*Alcibiade ne voulait pas apprendre la flûte. Elle
déforme l'ovale du visage disait-il et abîme les joues.*

ATHÉNÉ.

*Il avait un pantalon noisette assez court, des
chaussettes blanches et des escarpins vernis.*

F. L. (*Notes sur Ch. Baudelaire*).

Un chef-d'œuvre est achevé dès le commencement.

WHISTLER.

*Qu'importe si les bergers de Virgile ne parlent pas le
langage champêtre; ils ne sont que ses chalumeaux
divins.*

WIENCKELMANN.

HAROLD

Ô jeunesse, plaisir, amour, cheval, tailleur!
Cravate que l'on noue, œillet que l'on épingle!
Et vous, brouillard du Nord et tempête qui cingle
Le visage comme une fleur.

Vertige d'être seul, loin des bibliothèques,
Dans le jour merveilleux tel un libre palais
À la fois comme on vit dans un collègue anglais
Et dans une légende grecque.

J'ai donc pu délaissier Nell avec ses yeux d'eaux
Pour la placide France aux doux yeux de châtaigne
L'impur Walter Pater pour le noble Montaigne
Pour la pelote, le polo

J'ai pu laisser dormir sur leurs rayons de cuivre
La Bible paternelle et son odeur de thé
Le Keats en souple peau, le Shakespeare annoté
Sans qui je ne pouvais pas vivre.

Nell je vous imagine au crépuscule anglais
Lisant comme une jeune et blonde Pénélope
Les caractères bleus sur la lourde enveloppe
Timbrée à la poste d'Anglet.

Dans notre île pareille à son île d'Ithaque.
Vous brodez de vos doigts attentifs et neigeux
Le chiffre de mon club par mes maillots de jeux,
Et d'une autre couleur à chaque.

Sur votre robe rose où l'aiguille tomba
Vous caressez le poil auburn de mon King-Charle
Qui lorsqu'il est sur vous et sans que je vous parle
Veut toujours me mordre.

UN JOUEUR BLEU

Aïba!

UN JOUEUR ROUGE

Yo!

HAROLD

Je ne vois plus rien et tout me contrarie
Que mon ami français est un heureux mortel !
Celle qu'il aime attend dans le hall de l'hôtel,
Et c'est un jeu de sa patrie!

ALAIN

Moi qui pressant des doigts Fantômes d'Orient
Lisais Loti dans un caïque du Bosphore

Sous un ciel constellé de poudre de phosphore
Et savourais Barrès au café Florian

Moi qui dans un désir vaste et cosmopolite
Oubliais, naviguant de détroit en détroit,
Ô mon Pays natal sur ton visage étroit
Que tout le rêve épars de la terre s'abrite.

Moi qui soupirais d'aise aux lieders allemands
Et qui ne savais pas sentir la moindre haine
Contre un pays qui fut le pays d'Henri Heine
Moi qui pleurais, D'Annunzio, sur tes Romans!

Moi qui n'aimais jadis que les fraîches régates
Entre les jeunes Grecs de Cambridge et d'Oxford ...
Par quel plaisir plus chaud, par quel lien plus fort,
Me captive ce sol piétiné d'espargates.

Je préfère ce mur à la Kasba d'Alger
Qui lui encor le soit comme un vase d'albâtre
A la colonne héllène où s'adosse le pâtre
Aux colombes du parc, aux neiges du verger.

Je préfère ce mur auquel nul ne ressemble
Nul avec sa fenêtre et nul avec ses fruits

Quand cette fresque d'air, de soleil et de bruit,
Six jeunes héros blancs l'y peignent tous ensemble.

Car dès que le camp bleu fait mon pays vainqueur
En face de ce mur sans raisins et sans lierre
Je sens lorsque la balle heurte une fois la pierre
Contre mes doigts émus battre dix fois mon cœur.

1^{er} BLEU

La balle contre le mur blême
Écrase le beau soleil chaud,
Mariage d'or et de chaux
Sous un transparent diadème!

2^e BLEU

Celle que j'aime est là sur le premier gradin.

3^e BLEU

La mienne est sur le deuxième.

1^{er} BLEU

L'autre côté du mur donne sur le jardin
Où demeure celle que j'aime!
Notre balle comme un fruit mur
Frappe le côté nu du mur

Bondit, s'acharne, se dépêche ;
Tandis que de l'autre côté,
Par les jeux divins de l'été
Mûrit sa calme sœur la pêche.

C'est le plus beau jardin qui soit
Chacun voudrait l'avoir à soi
Puisque d'un côté l'on s'assoit
Parmi le maïs et les figues
Et, qu'enfermant nos mains aux corbeilles d'osier,
Sachant qu'il a tout près des fruits pour nos gosiers
Et l'épaule où dormir au milieu des rosiers
De l'autre nous battons cette riante digue.

2^e BLEU

Ah! mes frères blancs que sait-on
De plus ambigu qu'un fronton
Qui peut sous notre azur prodigue
Voir d'un côté la paix, de l'autre la fatigue.
Quand monte un sanglant peloton
Charmé par un des deux visages de ce masque
Garde en fixant des yeux la ligne du feston
Toute la triste gâté basque.

1^{er} BLEU

Je suis venu de Guéthary
Mon béret de pelotari
Est comme un de nos toits qui penche
Et mon gant courbe comme un bec
Je l'ai trempé dans le varech
Auprès de la chapelle blanche.

La vierge propice aux vaisseaux
Doit aimer ces étroits berceaux
D'où jaillit la balle bercée
Elle saura bénir mes jeux
Comme elle guide avec ses yeux
Les hasards d'une traversée.

Elle tendra ses bracelets
Du seuil de son divin palais
Vers les risques de la pelote
Et deviendra lorsque les poings
Luttent pour acquérir des points
Ma bien-aimée et mon pilote!

2^e BLEU

Et moi j'arrive d'Itsassou
Là c'est toujours Dimanche sous

La candide et morne lumière.
J'ai laissé quand je suis parti
Le clocher, le mur tout petit
Et le tout petit cimetière.

J'écoutais un coq enrôlé
Je rêvais au nom d'Arroué,
J'espérais sa chance et sa gloire !
Et dans la source au goût herbeux
Où plonge le muffle des bœufs
Je puisais du ciel pour en boire.

Chez nous le plus humble canton
A son église et son fronton
Couronné d'un svelte grillage.
Pour qu'on marche bien rien ne vaut
À chaque village nouveau
De croire que c'est son village.

3^e BLEU

Je suis de Cibourne aux longs soirs
Baignant ses volets bleus et noirs
Au fleuve où leur reflet s'enlise
Et un ami qui voyagea
M'a dit un jour lointain déjà
Qu'elle était une autre Venise.

Il disait : Elle a ses canaux,
Ses piments sont des cardinaux,
C'est monde langoureuse idole ;
Et le gant à ton poing lié
Tu ressembles au gondolier
Qui jouerait avec sa gondole.

Je n'y suis plus, mais je suis sûr
Que c'est d'elle, au lieu de ce mur,
Dont paraît le visage unique
Comme celui de Jesus-Christ
S'était si tendrement inscrit
Sur le voile de Véronique.

1^{er} ROUGE

Ah ! lorsque le vent Africain
Apporte sur le mur d'Ascain
Une blancheur orientale
Amollissant la dure chaux ;
Le souvenir de Ramuntcho
Sur tout le village s'étale.

Ce frère qui n'a pas été
Imprègne notre grave Été ;
Rôde au soleil, dort sur la mousse.

Et je rêve au port de Tunis
Où chaque demeure est un lys,
Et que j'ai vu quand j'étais mousse.

Je suis féroce et je suis doux
Ainsi que ce vent de chez nous ;
Et la fille au visage d'ambre
Trouve également énervants
Ce jeune homme et ce jeune vent
Qui tous deux entrent dans la chambre.

2^e ROUGE

Celle que j'aime n'est pas là.
Elle n'a ni parc, ni villa,
Mais dans cette double campagne
Où l'Espagne est la France encor
Elle m'attend de tout son corps
Dans un balcon bombé d'Espagne.

Elle attend comme un lourd oiseau
Qui regarde par le réseau
De fer où la rose d'or brille.
Celui-là qu'ayant tant aimé
Elle voit enfin enfermé
De l'autre côté de la grille.

Nocturne, pâmée à l'excès,
Elle écoute les trains français
Se rapprocher de gare en gare.
Ah ! quelle flamme dans le sang
Aura-t-elle en reconnaissant,
Le petit feu de mon cigare!

3^e ROUGE

Je sais à peine d'où je viens
Mes parents ne sont plus les miens
Et tant de murs ont vu mon geste
Et tant de publics mon émoi
Que ne sachant plus rien de moi
Mon nom est tout ce qui me reste.

La balle ronfle, vole, bat ;
Ah ! le prodigieux combat
Pour lequel danse ma sandale.
Les autres ont beau bondir, fuir,
Tendre un gant de paille et de cuir,
Mais la balle est toujours ma balle!

Les filles me trouvent hagard
Qu'aurai-je d'autre en mon regard
Que ce qui dirige ma vie

Je suis plus jeune que vous cinq
Mais sur le bleu ruban de zinc
Jamais mon envoi ne dévie.

UN BLEU

Une balle va naître!

UN ROUGE

[plusieurs mots illisibles] va buter!

UN BLEU

Yo!

UN ROUGE

Prends garde, son coup bref ensemble est juste et fourbe
Et la balle gardant le secret de sa courbe
Déçoit notre rouge trio.

UN BLEU

Creusant la paix du jour
Ma chistera brûlante
Qui puise et jette au sol du soleil et de l'air
Offre à ma main jamais trop lente
Un lacet qui blesse ma chair :
Et le triple clou qui s'y plante!

1^{er} BLEU

Vierge de Guéthary dont les pieds sont en or
Faites que dans la niche où nul repos ne dort
Tel un blanc goéland la balle entre et s'en aille.

2^e BLEU

Grands lys particuliers aux tombes d'Itsassou.
Pareils aux cris muets des visages dissous
Parfumage de pollen ma corolle de paille!

3^e BLEU

Cibourne à ce fronton de soleil ébloui
Pour m'aider fixe bien, village évanoui,
Ces murs dont l'eau saumâtre a [*un mot illisible*] les
briques.

1^{er} ROUGE

Notre Dame d'Askain, cierge dominical,
Qui vous éteignez presque au souffle tropical,
Joignez-vous pour m'aider Notre Dame d'Afrique!

2^e ROUGE

Je te rapporterai si mon camp est vainqueur
Des poudres pour ta peau, de l'orgueil pour ton cœur
Toi qui m'attend debout près de Fontarabie ...

3^e ROUGE

Où donc jouai-je hier ? Où jouerai-je demain ?
Cette arme inoffensive est plus ferme à ma main
Que la tache rebelle aux parfums d'Arabie.

LA FIANCÉE DU 3^e BLEU

Et tandis que le vol de leur bras détendu
Et leur chemise blanche et la muraille blanche
Prolongent à nos yeux le jour de ce dimanche
Le soir dans mon jardin est déjà descendu.

Contre l'espalier sombre il guette la seconde
Où lorsqu'un dernier choc heurte le double mur
Il peut l'escalader comme un sauteur obscur
Et suspendre l'adresse et disperser le monde.

Alors tout partira, s'éteindra, se taira,
Des gamins sur les bancs étaleront des toiles,
Et la lune aura l'air d'être la Chistera
Qui lance les étoiles.

JEAN COCTEAU - MAURICE ROSTAND.

Cambo

Octobre 1912.

JEAN COCTEAU
MAURICE ROSTAND

Euskal Bukolikoak

I. HORMA BIKOITZA

*Greffhule kondesa andereari,
pilota-partidu bat oroituz.*

JEAN COCTEAU- MAURICE ROSTAND

Hauxe gozamina!

WALTER PATER

*Baudelairek gurekin batera esango zukeen, nik ez dut
maite, paradoxak zintzilikatzen ditu gogo gehiegiz.*

V. HUGOREN EMAZTEA

*Zezenketetan pertsonaiak txikiak dira denak, fuksia
kolorekoak.*

MANET (Gutunak)

Ez deitu Jainkoari, malkoen seme horrek.

SHAKESPEARE

*Oso arin gorritzen naiz eta alde batetik soilik, arraina
bezala.*

SHELLEY (Gutunak)

Nire bizia hilen segida baino ez da.

WIENCKELMANN

*Alzibiadek ez zuen txirula jotzen ikasi nahi. Muturra
desitxuratzen zuela zioen, eta masailak itsustu.*

ATENEA

*Galtzak ur-koloreak zituen, oso motzak, galtzerdiak
zuriak eta txarolezko zapatak.*

F. L. (Baudelaireri buruzko oharra)

Maisu lana hasi aurretik dago amaituta.

WHISTLER

*Zer axola Virgilioren artzainek ez badute hitz egiten
larreko hizkeraz; Jainkoaren hauspo-arnasa hotsak
dira.*

WIENCKELMANN

HAROLD

Oi gaztaro, gozamen, maitasun, zaldi, jaka!
Lotzen dugun lepokoa, josten dugun krabelina!
Eta zu, Iparreko laino, lorea nola aurpegia
Jotzen duzun ekaitza!

Bakardadearen izua, liburuak urruti,
Egun zoragarrian, jauregi erabat librean
Bezala bizirik ingeles ikastetxean,
Greziar ipuinean biziz.

Alde bat utzi dut Nell eta haren begitarte urezkoa
Ordezkatat hartu dut gaztaina begiko Frantzia
Walter Pater zikinaren tokian Montaigne garbia
Pilotaren ordez, poloa.

Utzi egin dut lotan kobrezko errainuan
Te usaina darion Biblia aitapontekoa,
Shakespeare oharrez betea, Keats larru leunekoa,
Nola horiek gabe mundura!

Nell, hor zaude ingeles ilunabarrari begira,
Irakurtzen Penelope ilehori eta gaztetsua
Bezala letra urdinak, gutunazal loditxoan,
Angeluko zigiluduna.

Itakaren antzekoa den gure uhartean
Zuk josten duzu hatz elurrezkoetz gauetan,
Klubeko zenbakia nire elastikoetan
Bakoitzean kolore ezberdina.

Jostorratza jolasean dabil zure gona arrosazkoan
Ukitzen duzu nire Karlos-Erregeren ile kaoba kolore
Zurekin dagoenetik nik zurekin hitz egin gabe
Koska egin nahi dit ordaina.

JOKALARI URDINA

Ahí va!

JOKALARI GORRIA

Yo!

HAROLD

Ez dut ezer ikusten eta dena zait arrotza
Adiskide frantsesa, hura bai zorionean!
Berak maite duena zain dago hotelean,
Eta da bere aberriko jolasa!

ALAIN

Nik hatzez Ekialdeko Fantasmak ditut ukitu
Irakurri dut Loti Bosforoko txalupa batean

Fosforo hautsez jositako zeru baten azpian
Eta Barrès Florian kafean dut dastatu

Desira zabal eta mundutar batek loturik,
Ahantzi nuen nik, estutik estura ibilian,
Oi nire sorterrria zure aurpegi itxian,
Sortutako amets oro dagoela gorderik.

Kanta alemanak entzunez bihotza zait askatu!
Eta ez dut herrarik sentitu sekula
Henri Heineren aberri izan zenaren aurka
Zure Erromatarrek, D'Annunzio, begiak ureztatu,

Nik estropada bustiak baino ez nituen maite,
Cambridgeko eta Oxfordeko greko gazteen lehiak,
Zein atsegin beroagoak, zein lotura sendoagoak
Hartu nau abarketez jantzitako lur honek!

Argeleko Kasba baino horma hau dut nahiago
Arrats ontziak bezala distira dagiena
Habe heleniarra baino, artzainak atsegin duena,
Parkeko usoak baino, lore arteko elurra gehiago.

Nahiago dut horma hau, ez baitago antzekorik
Ezer, ez bere leiho, bere fruitu eta abarrekin,

Aire, eguzki eta zarataz egindako margo honekin,
Denek batera jotzen dute sei heroi gazte eta zurik.

Urdinean nire herria garaile ateratzen baita
Ez sustrairik ez huntzik ez duen hormaren aurrean
Sentitzen dut pilotak harria jotakoan
Nire hatzak dardaraka eta bihotza punpaka.

LEHEN URDINA

Pilotak horma hutsa jotakoan
Lotzen du eguzki bero galanta,
Urre eta karea arteko ezkontza
Diadema garden baten azpian!

BIGARREN URDINA

Maite dudan hura lehen harmailan eserita dago.

HIRUGARREN URDINA

Nirea bigarreanean dago.

LEHEN URDINA

Hormaren beste aldean da lorea,
Hantxe da maiteen dudan emea!
Pilotak igalia balitz bezala
Jotzen du hormaren alde huts herbala

Jauzika, larrutzen da eta larritzen,
Beste aldean, bitarte horretan,
Udako jolas zoragarrietan,
Lasai asko mertxika da umotzen.

Lorategirik ederrena hori
Beretzat askok nahi lukete sari
batetik bestera luzatzen dabil
Landarean arto musker eta piku.
Eskuak sartzen zume saskietan,
Jakirik igalia guretzat dela,
Lotarako tokia ere badela.
Eta pareta hau alai jotzen dugu.

BIGARREN URDINA

Ai, anaia zuriok, zer ote deusik
Frontoia baino zalantzazkoagorik
Nork ikus lezake urdinaren azpia
Batetik bakea, bestetik nekea.
Pelotoi odoltsua antolatuta
Mozorro aurpegiak liluraturik
Zaintzen du festaldia begiz jota
Euskal tristezia alai oso-osorik.

LEHEN URDINA

Getariatik naiz ni orain etorri
Pilotari txapelak badirudi
Teilatua zintzilik goitik behera
Eskularrua nirea da okerra
Neuk tenkatu dut larre heze berdean
Kapera zuriaren ondotoxan.

Ontziak maite dituen birjinak
Nola ez maiteko sehaska estuak
Hortik irten da pilota amultsua
Onetsiko ditu nire jokoak
Ez al ditu gidatzen begitsua
Itsasaldi bateko gorabeherak.

Zabalduko ditu hark besotxoak
Jauregi handi horren atarikoak
Pilota tokira erraz botatzeko
Badaki ari direla esku bilduak
Borroka eta ahalegin lortzeko
Maite dudanarentzako puntuak.

BIGARREN URDINA

Itsasotik nauzue ni etorri
Beti da igande argi eta zuri
Argi ilaun eta ilunaren nagusi

Honakoan hantxe ditut utziak
Kanpandorre ederra, horma txikiak
Eta hilerri bat txikian txiki.

Oilar sentitu dut goizaldean
Arrueren alde egin dut ametsean
Hura garaile, dut itxaropena!
Eta belar gustuko iturrian
Idien muturraren ispiluan
Zeruari so hartzen nuen edana.

Gure artean auzo txiro bakoitzak
Baditu eliza eta frontoi ederrak
Burdina hariz inguratua guztiz.
Ongi bizitzekotan ezingo da
Sinetsi pasa dugun herria
Norberaren herri hutsa denik.

HIRUGARREN URDINA

Ziburukoa ni, ate gorriak
hartzen ditu arratsalde luzeak
Bere ispilu diren ur aratzetan
Eta ibilian dabilen lagun batek
Esan zidan aspaldiko egun batez
Venezia berria zela benetan.

Hala zioen: Baditu ubideak
Gorriak dira bertako piperrak,
Mundu hori da beltz eta mudurria:
Eskularrua ukabilari lotua
Gondolazale antza duzu petoa
Gondola duzula jolaskidea.

Ez dakit, baina ia seguru nago
Harena dela, hormaz haratago
Ikusten dudana zorizko musua;
Jesukristorena ere margotua
izan baitzen eta ongi taxutua:
Veronikaren oihal sakratua.

LEHEN GORRIA

Ai! Hegoaldeko haize afrikarrak
Azkaineko horma bortizki jotzean
Ekialdeko zuritasuna dakar
Biguntzen digu karea gogorra;
Gure Ramuntxoren oroitza sorra
Hirian zehar guztiz zabaldu da.

Izan ez den anaiak du betetzen
gure uda pisu astuna oroiminez;
Eguteran lo da apar gainean.

Eta amesten dut Tuniseko kaia
Egonaldi bakoitza da lilia
Hala jakin nuen txo nintzengan.

Gogorra naiz eta banaiz biguna
Gure herriko haizea bezala;
Anbar aurpegiko neskatxak
Berdin ditu atsegin biak
bai mutila bai haize gaztea
Batera logelan sartzean

BIGARREN GORRIA

Maite dudana ez da inon ikusten
Ez du ez parkerik ez hiririk hemen,
Baina landa bi aldiz den honetan
Espainia Frantzia aldean sartua
Zain dut gorputz eta arima betea
Espainiako balkoi biribilean.

Bera dago txori astuna bezala
Urrezko arrosa garbia nola
Hazi duten sarepetik zelatan.
Hain maitea dudana, ai, itxirik
Ezkatatu eta gorde dute azkenik
Burdin hesiaren beste aldean.

Gau txori, zorabioan erortzen,
Frantses trenak ditu hurrean entzuten
Geltokiz geltoki eginik bidea.
Ai! Halako su beroa odolean
Izekiko zaio ezagutzean
Nire zigarroaren gar txikia!

HIRUGARREN GORRIA

Ez dakit nondik natorkizuen ere
Nire gurasoak ez ditut nire
Hormak ditut balentriaren lekuko
Jende ugari dago nire atezuan
Ez badut sinesten nire patuan
Izena sekula ez dut ukatuko.

Pilota badoa hegal eta ziztu
Ai! Borroka sinesgaitzaren fruitu.
Dantzan ari da nire sandalia.
Besteak brinko eta jauzi eginik
Badaukate larru eskuko bigunik,
Baina pilota beti nirea da!

Neskatxentzat omen naiz herabea
Hala diote ni begira ikustean,
Bera baita biziaren zuzendari.

Zuek bostok baino naiz gazteagoa
Baina zerrenda urdinaren gainean
Ez da nik jota hutsean erori.

URDIN BAT

Pilota bat jaiotzera doa!

GORRI BAT

(hitz ulertezin asko) botea egitera doa.

URDIN BAT

Neu!

GORRI BAT

Kontuz ibili, haren zartako laburra zuzena da eta
[maltzurra
Eta pilotak gordez bere jiraren sekretua eta adurra
Etsiarazten gure hirukote gorria.

URDIN BAT

Egunaren bakea hautsiz
Nire saskiak distira dagi
Bota egiten dio eguzkiari.
Eskaintzen nire esku ez motelari
Lakio bat haragi zauritu honi:
Eta iltze hirukoitza sartzen berari!

LEHEN URDINA

Ama Getariakoa, oinak dituzu urrezkoak,
Sar dadila sosegurik ez den hobi handian
Antxeta zuria bezala pilota eta gera.

BIGARREN URDINA

Lili bereziak Itsasoko hilobian.
Oihu mutuak aurpegi deseginean.
Lore-hauts lurrina nire lastozko korolan!

HIRUGARREN URDINA

Ziburuk badu eguzki begiko frontoirik
Niri laguntzeko, hiri lainotsu horrek tinka ongi
Pare horiek, ur gaziak (ez da ulertzen) teilak.

LEHEN GORRIA

Ama Azkainekoa, igandeko kandela,
Amatatzen zara hego haizeak jotzen duela,
Ekarri nire lagun Amabirjina Afrikakoa!

BIGARREN GORRIA

Irabazle bagara, zuretzat ondasunak,
Larruarentzat hautsak, bihotzarentzat goitasuna,
Nire zain zaude Hondarribitik gertu...

HIRUGARREN GORRIA

Non jokatu nuen atzo? Non jokatuko ote bihar?
Arma jostalari hau itxiago nire eskuan
Mantxa zatarra Arabiako lurrinetan baino.

HIRUGARREN URDINAREN ANDREGAIA

Eta haren beso hegaldi geldia
Haren atorra eta horma zuriak
Begien aurrean igande aldia
Arratsa ja loretara eroria.

Ilunean bigarrena du bota
Azkenak jo du horma bikoitza
Gora daiteke gau-lapur bailitzan
Eta mundua dantzan erdibitu.

Dena geratuko da itzalia,
Mutikoeak erakutsiko oihalak
Ilargiak nahi luke izan izarrak
Jaurtitzen dituen saskia.

JEAN COCTEAU- MAURICE ROSTAND

Kanbo

1912ko Urria.

JEAN COCTEAU
MAURICE ROSTAND

Los Bucólicos vascos

I. PARED DOBLE

*A la señora condesa de Greffhule,
en recuerdo de un partido de pelota.*

JEAN COCTEAU- MAURICE ROSTAND

¡Oh, frenesí de placeres!

WALTER PATER

*Baudelaire estaría de acuerdo, no lo amamos, coloca
paradojas con afectación.*

SEÑORA DE V. HUGO

*En las corridas de toros los personajes son pequeños y
están ataviados de colores fucsia.*

MANET (Cartas)

No invoques a Dios, hijo de las lágrimas.

SHAKESPEARE

Enrojeczo con rapidez, y sólo de un lado, como el pescado.

SHELLEY (Cartas)

Mi vida es sucesión de muertos.

WIENCKELMANN

*Alcibíades jamás quiso aprender a tocar la flauta.
Decía que deformaba los labios e hinchaba las mejillas.*

ATENEA

*Vestía pantalón corto color avellana, calcetines blancos
y zapatos de charol.*

F. L. (Notas sobre Baudelaire)

*Una obra maestra está acabada antes de haber
comenzado.*

WHISTLER

*Qué importa que los pastores de Virgilio no hablen la
lengua del campo; no son más que la música de la
respiración divina.*

WIENCKELMANN

HAROLD

¡Juventud, placer, caballo, amor!
¡Clavel en ojal, nudo en la corbata!
Y tú, niebla del Norte, tempestad que azota
El rostro como una flor.

Imán de soledad, de libros lejano,
En día hermoso y en libre palacio
Viviendo como en un inglés colegio
Y en un mito greciano

Cambié a Nell de ojos puros y solos
Por la dulce Francia de ojos castaños
El Walter Pater por Montaigne sin año
Pelota, por el polo.

He dejado sobre rayos de cobre
Biblia paterna y su aroma a té
El Keats de cuero, Shakespeare que anoté
Sin él sería pobre.

Nell, os imagino en el ocaso inglés,
Viendo como una rubia Penelope
Letras azules en el sobre torpe
Con timbre de Anglet.

En nuestra isla, a Ítaca parecida,
Bordáis con esas manos nevosas,
El número del club en mis camisas
Cada una distinta.

La aguja de hilar en la falda juega
De mi Rey-Carlos tocáis la hebra
Que estando con vos sin que os hablara
Creo que me mordiera.

JUGADOR AZUL

¡Ahí va!

JUGADOR COLORADO

¡Yo!

HAROLD

Nada más veo y me es contrario
¡Qué dicha la del amigo francés!
Su amada espera en el hall del hotel,
¡Es un deporte patrio!

ALAIN

Yo que poseí Fantasma de Oriente
a Loti en un caique del Bósforo

Bajo un cielo fértil en polvo y fósforo
Degustaba a Barrés en el Florian.

Yo, que en un deseo cosmopolita
Olvidaba, yendo de trecho en trecho,
oh, país natal en tu rostro estrecho,
Que todo sueño en tierra se cobija.

¡Yo gozaba oyendo cantos germanos
No guardaba el menor resentimiento
Hacia un país, de Heine fuera nacimiento,
Lloraba, D' Annunzio, con tus Romanos!

Cómo amaba las briosas regatas
De Cambridge y Oxford echadas a suerte
Por qué placer, por qué nexo más fuerte,
Me cautiva este suelo de alpargatas.

Más quiero esta pared a la Kasba de Argel
Que brilla como un vaso de color
A la base griega, ocio del pastor,
Palomas a las nieves del vergel.

Esta pared a nada se parece
Ni con su ventana ni con sus frutos
Cuando seis jóvenes héroes blancos

La golpean entre sol, ruido y aire.
Porque si el campo azul honra a mi país
Delante de esta pared sin asiento
Al golpear pelota y piedra siento
Mis dedos temblar, mi alma latir.

PRIMER AZUL

Pega la pelota la pared plana
Aplasta el cálido y bello astro,
¡Bodas ciertas entre la cal y el oro
Bajo una transparente diadema!

AZUL SEGUNDO

Quien amo está sentada en la grada.

AZUL TERCERO

La mía está a ella pegada.

PRIMER AZUL

Al otro lado del muro está el jardín
Donde habita la que yo tanto amo.
La pelota como fruto en sazón
Golpea el lado puro de la pared.
Salta, se descarna, se parte en dos
Mientras tanto, siempre en el otro lado

Por los juegos divinos del estío
Madura despacio el melocotón.

No hay en el mundo huerta más bella
Todos quisieran que ella fuera suya
De uno a otro lado se desarrolla
Entre el maíz y la higuera verde
En cestas de mimbre están nuestros dedos
Sabiendo que hay muchos frutos sabrosos
Y lecho entre rosales espinosos
Golpeamos esta pared alegre.

AZUL SEGUNDO

¿Blancos hermanos, decid con pasión,
Hay algo más ambiguo que un frontón?
¿Quién querrá ver bajo nuestro azul pródigo
A un lado fatiga, al otro sosiego.
Cuando se muestra un sangrante pelotón
Encantado por una de las máscaras
Ojos Absortos en la diversión
Toda la alegre tristeza vascongada?

PRIMER AZUL

He venido de Getaria
Mi gorra de pelotari

Parece un tejado que cuelga
Mi guante es curvo como pico
Lo tensé en el prado rico
Junto a la capilla blanca.

La Virgen que ama las barcas
También amaré estas cunas
De allí sale la pelota
Bendecirá ella mis juegos
Así vigila con sus ojos
La suerte de la derrota.

Ella extenderá sus brazos
Desde su divino palacio
al sol de la bola mía
Y volverán cuando los puños
Luchen por conseguir puntos
Para mi amada y guía.

AZUL SEGUNDO

He llegado de Itsaso
Allá es Domingo bajo
El foco de luz cándido.
He dejado atrás del todo

La torre, el ligero muro
El cementerio bucólico.

¡He sentido al gallo cantar
Soñaba con Arrúe y su fama
Esperaba victoria y celo!
En el pilón de agría fuente
Donde bebe el buey fuerte
Bebía rogando al cielo.

En mi país cada cantón
Tiene iglesia y frontón
Con alambrada esbelta.
Gracias a la vida sabemos
Que toda ciudad que pasemos
No será nunca la nuestra.

AZUL TERCERO

Soy de Ziburu, sus puertas
Se bañan en tardes claras
El río su reflejo arrecia
Y un amigo ha afirmado
Mucho tiempo ya ha pasado
Que era otra Venecia.

Decía: tiene canales
Sus pimientos cardinales,
Es un mundo decadente
Y el guante atado al puño
Pareces gondolero niño
Con la góndola indolente.

No estuve allá, mas conozco
Que es suya junto al muro,
cuando admiro su rostro única
Como aquel de Jesucristo
Estaba tiernamente inscrito
En el velo de Veronica.

PRIMER COLORADO

Cuando la africana brisa
El muro de Ascain irisa
Una blancura oriental
Ablanda la dura cal;
El recuerdo de Ramuntxo arde
Y sobre la villa se expande.

El hermano que no existió
Impregna nuestro verano;
Duerme al sol sobre espuma.

Sueño con Tunez y su puerto,
Lo supe siendo inexperto
Cada estancia es una pluma.

Soy feroz y también tierno
Como el viento del terruño;
Y a la chica que huele a hierba
Le insufla igualmente aliento
Este joven y así este viento
Cuando entran en su alcoba.

COLORADO SEGUNDO

Quien amo no está en el lote
No tiene ni villa ni corte,
Mas en esta doble campaña
Donde España aún es Francia
Ella su cuerpo escancia
En un balcón de España.

Aguarda comoavecilla
Que mirara por la redecilla
con la rosa duradera.
Ella siendo tan amada
Ve que se encuentra encerrada
Más allá de la frontera.

Nocturna y desmayada
Oye los trenes franceses
Venir de parada en parada.
Qué llama en la sangre helada
Cuando haya reconocido,
Mi cigarro encendido.

TERCER COLORADO

Apenas sé de donde vengo
Mis padres no son los míos
Muchos han visto mi gesta
Tantas gentes mi emoción
Quién soy, no tengo noción
Es mi nombre lo que resta.

La pelota bota y bate
¡Ah! Prodigioso combate
Mi sandalia baila y bota.
Otros brincan con denuedo,
Llevan guante de paja y cuero
¡Mas la pelota es mi pelota!

Para las mozas soy tímido
En el mirar han advertido
Pues él dirige mi rumbo

Soy más joven que los cinco
Sobre el listón metálico
Nunca cometí fallo alguno.

UN AZUL

¡Que va a nacer una pelota!

UN ROJO

(muchas palabras ilegibles) ¡Va a botar!

UN AZUL

¡Yo!

UN ROJO

Cuidado, su golpe es recto y certero
Y la pelota guarda su secreto;
Angustia de los rojos.

UN AZUL

Rompe la paz matinal
Mi cesta aérea y solar.
Saca y lanza al suelo del sol y aire
Da a mi mano poco lenta
Lazo que hiera la carne
Y el triple clavo se adentra.

PRIMER AZUL

Virgen de Getaria, de oro conforme,
Haz que en el nicho donde nadie duerme
Entre suave y quede la pelota.

AZUL SEGUNDO

Lirios en las tumbas de Itsasu vueltos.
Como gritos mudos de rostros sueltos
¡Qué de polen en corola de paja!

AZUL TERCERO

Frontón de Ziburu, sol abrumado,
Ayúdame y ajusta, pueblo amado
Muros que la sal (palabra ilegible) las tejas.

PRIMER COLORADO

Virgen de Ascain, cirio dominical,
Que se apaga con el viento tropical,
¡Por mí intercede a la de África!

COLORADO SEGUNDO

Te traeré si salgo vencedor
Bálsamo y orgullo a tu corazón.
Tú que me aguardas en Fuenterrabía...

COLORADO TERCERO

¿Dónde jugué ayer? ¿Dónde mañana?
El arma está a mi mano más cerrada
Que lo impuro a los perfumes de Arabia.

LA NOVIA DEL TERCER AZUL

Mirad el vuelo del brazo parado
Y el vestido blanco y el muro blanco
Cómo dura a la vista este domingo
La tarde en mi jardín se ha bajado.

Golpea la segunda contra el lecho
Último golpe que aterra el muro.
Quién trepara como ladrón oscuro
Y suspendiera y dispersara el mundo.

Mas todo se acaba, se apaga y calla,
Los niños enseñarán sus toallas
La luna querrá ser la Chistera afilada
Que lanza las estrellas.

JEAN COCTEAU- MAURICE ROSTAND

Cambó

Octubre 1912.

IDATZ & MINTZ LITERATUR ATALEN SORTA
ALDIZKARIAREN SEPARATAK

- 3-4 zenb. (1982). *Poema batzu*. Li Po; itzulpena Joseba Sarrionandia
- 15 zenb. (1988). *Cathay. Poemak*. Ezra Pound; itzulpena Javier Kalzakorta
- 18-19 zenb. (1989). *Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta*. Eusebio Erkiaga
- 25 zenb. (1998). *Bizkaitar zarrak eta erromatarrak*. Felipe Arrese Beitia
- 28 zenb. (1999). *Oi, hondarrezko emakaitz!* Miren Agur Meabe
- 30 zenb. (2000). *Tagen Atarako itzulera*. X.L. Méndez Ferrín; itzulpena Andres Urrutia
- 31 zenb. (2001). *Bettiri Santsen balentriak*. Jabier Kalzakorta
- 33-34 zenb. (2001). *50 olerki gandiagatar*. Bitoriano Gandiaga
- 37 zenb. (2003). *Nabarra*. C. Day Lewis; itzulpena Luigi Anselmi
- 42 zenb. (2006). *Abd El Kader*. Txomin Peillen
- 43 zenb. (2007). *Neurtitzak*. Eusebio Erkiaga
- 45 zenb. (2008) *Hizunigu*. Mikel Zarate
- 46 zenb. (2008) *Itzulerarik gabeko txartelak*. Amaia Iturbide
- 47 zenb. (2009) *Muerte sin fin / Amaibako heriotza*. Jose Gorostiza; itzulpena Josu Landa
- 50 zenb. (2010) *Les Bucoliques basques / Euskal Bukolikoak / Los Bucólicos vascos*. Jean Cocteau; Maurice Rostand; itzulpenak Felipe Juaristi

Idatz & Mintz
Literatur atalen sorta
aldizkariaren
50. zenbakiko separata